

HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEA
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua
Ikasturtea: 2021-2022

UNITATE DIDAKTIKO SENTSIBILIZATZAILE
BATEN PROPOSAMENA LASARTE-ORIAKO
ORIANTE INSTITUTUARENTZAT

EGILEA: Beñat Negrodo Muñoa

ZUZENDARIA: Ruth Cayero Alcorta

Data, 2022ko ekaina

LABURPENA

Lan honetan ikasleen desgaitasunetikiko sentsibilizazioa eta desgaitasuna duten pertsonetikiko enpatia bultzatzea helburu duen unitate didaktiko sentsibilizatzaile bat proposatzen zaio Lasarte-Oriako Oriarte institutuari. Proposamen hau Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) ikasleei bideratuta dago eta Gorputz Hezkuntzako saioetan burutuko da. Guztira 8 saio izango dira non ikasleek joko-jolas sentsibilizatzaile eta kirol egokitu ezberdinak praktikatu dituzten desgaitasun ezberdinak simulatuz jakiteko nola desgaitasun horiek baldintzatu dezaketen kirolaren praktika. Saio bakoitzaren hasieran irakasleak saioan zehar landuko den desgaitasunari buruzko informazioa emango du eta saio amaieran ikasleek saioan zehar bizitakoaren inguruko hausnarketa egingo dute. Aintzat hartuta gorputz- eta kirol-jarduera tresna pribilegiatua dela balioak eta jarrerak transmititzeko, askotan gai honen inguruan dagoen ezagutza eskasagatik ikasleek desgaitasunetikiko dituzten aurreiritzi zein jarrera negatiboak gainditzea bilatzen da unitate didaktiko sentsibilizatzaile honen bitartez.

HITZ GAKOAK: desgaitasuna, sentsibilizazioa, inklusioa, kirol egokitua eta Gorputz Hezkuntza (GH).

ABSTRACT

In this work we propose to the Oriarte Institute of Lasarte-Oria a sensitizing didactic unit whose objective is to raise awareness of the students' disabilities and empathy with people with disabilities. This proposal is aimed at students of Compulsory Secondary Education (CSE) and will be carried out in Physical Education sessions. In total there will be 8 sessions in which students will practice different sensitizing games and adapted sports simulating different disabilities that may condition the practice of sports. At the beginning of each session the teacher will inform about the disability that will be worked on during the session and at the end of the session the students will reflect on what they have experienced during the session. Bearing in mind that physical-sports activity is a privileged tool for the transmission of values and attitudes, this didactic unit seeks to overcome the prejudices and negative attitudes of students towards disabilities, often due to the lack of knowledge that exists in this area.

KEY WORDS: disability, awareness, inclusion, adapted sport and Physical Education (PE).

AURKIBIDEA

1. SARRERA	1
2. MARKO TEORIKOA	2
2.1. SENTSIBILIZAZIOA	2
2.1.1. SENTSIBILIZAZIO PROGRAMAK	4
2.1.2. SENTSIBILIZAZIO PROGRAMAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN	5
2.2. DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN INKLUSIORAKO BARRERAK	10
2.3. HEZKUNTZA INKLUSIBOA	12
2.3.1. GORPUTZ HEZKUNTZAKO IRAKASLEAK	13
2.3.2. DESGAITASUNEKIKO JARRERA ALDAKETA HEZKUNTZAN	15
3. HEZIBERRIREN OINARRIZKO HEZKUNTZAKO CURRICULUMEAN DESGAITASUNAREN GAIARI EGITEN ZAION ERREFERENTZIAREN AZTERKETA	18
4. LANAREN HELBURUAK	19
5. UNITATE DIDAKTIKOA	19
JUSTIFIKAZIOA	19
ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	21
ERANSKINAK	23
UNITATE DIDAKTIKOA	23
IRAKASLEAREN HAUSNARKETARAKO GIDOIA	58

HITZAURREA

Orain arte desgaitasunen inguruan izan dudana informazioa oso eskasa izan da. Betidanik ezagutu dut desgaitasunen bat duen jendea baina inoiz ez dut jakin ia ezer beraien inguruan, soilik beraiekiko estereotipoak eta isekak ikusi izan ditut. Nahiz eta ez dirudien arren, populazioaren ehuneko esanguratsu batek du desgaitasunen bat, %15-ak hain zuzen ere. Horren inguruan pentsatzean, galdera hau egiten diot nire buruari: "Desgaitasuna dutenen populazioa gure gizartearen zati garrantzitsu bat dela aintzat hartuz, nola da posible haien inguruan hain gutxi jakitea?"

Jarduera Fisiko eta Kirolen Zientziak ikasten ditut eta laugarren mailan nago. Aurtengo ikasturtean ikasketak amaitzeko ezinbestekoak diren derrigorrezko praktikak burutu ditut. Azken hilabete hauetan Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioan praktikak egiten aritu naiz eta orain desgaitasuna dutenei bideratutako igeriketa ikastaroak ematen lan egiten dut. Praktikak eta aurten ikasi dugun Jarduera Fisiko Inklusiboaren ikasgaiari esker ikasi dut desgaitasunen inguruan gaur egun dakidan gutzia.

Hala ere, aurrez aipatutakoaren inguruan husnartzen dudanean ondorio batera iristen naiz beti: "Egiten ari naizen ikasketak egin ez banitu, ez nuen ezer jakingo desgaitasunen inguruan". Pentsamendu horrek eman dit ideia Gradu Amaierako Lan hau burutzeko.

Lan honetan Lasarte-Oriako institutuarentzat (nire institutua izan zena) desgaitasunen inguruan sentsibilizatzea helburu duen unitate didaktiko bat proposatuko dut gorputz hezkuntzako saioetan burutu dadin. Horren helburua ikasleak desgaitasun ezberdinak dituzten pertsonen kirola zein jarduera fisikoa burutzen dutenean bizitzen duten egoera bizitzea da eta horren bitartez beraiekiko jarrera positiboak sustatzea. Sentsibilizazio saioen ideia Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioak burutzen dituen sentsibilizazio ekintzetan oinarritzen da. Ekintza horietan Gipuzkoako institutu ezberdinetara joaten da eta bertako ikasleei desgaitasun ezberdinak bizitzeko aukera ematen zaie joko-jolas eta kirol ezberdinen praktikaren bitartez.

Sentsibilizazio saio horietan konturatu nintzen haur eta gazte askok ez zituztela inoiz horrelako egoerak bizi, hau da, harrapaketa begiak itxita aritzea ikusmen urritasuna simulatuz edota futbolean hankak soka batekin lotuta jolastea garun paralisia simulatuz. Hori ikustean, pentsatu nuen nik ez nuela izan horrelako aukerarik nire institutuan eta oso aberasgarria izango litzatekela gazteentzat zein gizartearentzat orokorrean jarduera horiek burutzea desgaitasunen inguruan sentsibilizatzeko eta horren bidez desgaitasuna duten pertsonen inklusioa gizarteko esparru guztietan ahalbidetzeko. Gainera, iruditzen zait ezinbestekoa izan beharko zela joko-jolasen bidezko sentsibilizazioan oinarritutako unitate didaktiko bat institutu guztietako gorputz hezkuntzako programa guztietan egotea. Lan hau Gipuzkoako zein Euskal Autonomia Erkidegoko institutu guztientzat bideratuta egon daiteke baina nik nire herriko Oriarte institutuari proposatzea erabaki dut badakidalako ikastetxe horrek ez duela gorputz hezkuntzako sentsibilizazio programarik.

Azken finean, uste dut beste pertsonen egoera ulertzeko beraien larruan jarri behar dela eta lan honek proposatzen dituen sentsibilizazio jardueren bitartez gazteek desgaitasun ezberdinak dituzten pertsonen egoera ulertu ahal izango dute. Gainera, desgaitasuna duten

pertsonen inklusiorako aurrerapauso handia izango litzateke ikastetxe guztietan gorputz hezkuntzako programan sentsibilizazio saioen presentzia.

1. SARRERA

Nahiz eta desgaitasuna duten pertsonak gizartearen zati garrantzitsu bat izan, oraindik ere nabarmenak dira haiekiko aurreiritziak zein jarrera negatiboak. Desgaitasunen inguruan izaten diren sinesmen faltsuak kasu askotan hauen inguruan izaten den ezagutza urriarengatik izaten da.

Aurreko guztia kontuan izanda, lan honetan desgaitasunetikiko unitate didaktiko sentsibilizatzaile bat proposatzen da Lasarte-Oriako Oriarte Institutuak Gorputz Hezkuntzako saioetan erabili dezan. Proposamen hau soilik Institutu jakin batentzat bideratuta egotearen arrazoiak da neronek, Oriarte Institutuko ikasle ohia izanda, badakidala Gorputz Hezkuntzako ikasgai ez dela desgaitasunaren inguruan sentsibilizatzeke inolako dinamizari egiten.

Unitate didaktiko honen helburu nagusia ikasleek desgaitasuna duten pertsonak jardura fisikoa zein kirola egiterakoan bizitzen dituzten egoerak eta zailtasunak bizitzea eta horren bitartez beraiekiko enpatia bultzatzea izango da. Guztira 8 saio izango dira non desgaitasunaren inguruan hausnartzeaz gain, joko-jolas sentsibilizatzaile eta kirol egokitu ezberdinak praktikatu diren zeinetan ikasleek desgaitasun ezberdinak simulatu dituzten jakiteko nola desgaitasun horiek baldintzatu dezaketen kirolaren praktika.

Lehenengo saioan ikasleei desgaitasunaren inguruan dakitenari buruz galdetuko zaie. Horretaz gain, saio guztien hasieran, ondoren landuko den desgaitasunaren inguruko nondik norakoak eta saioan zehar praktikatu den kirol egokituaren arauak azalduko ditu irakasleak. Saio bakoitzaren amaieran ikasle bakoitzak saioan zehar bizitakoaren inguruan hitz egingo du, simulatuak desgaitasunak eragin dizkion zailtasunak, zer sentitu duen saioan zehar,...

Unitate didaktikoari dagozkien 8 saioak amaitzean, bizipen osoaren inguruko hausnarketa egingo da. Honen bidez ikusi nahi dena da ea saio guzti horien ondoren desgaitasunaren inguruan zituzten aurreiritziak zein sinesmen faltsuak aldatu diren eta beraiekiko dituzten jarrerak hobetu diren eta enpatia eta sentsibilitatea bezalako baloreak sustatu diren.

2. MARKO TEORIKOA

Unitate didaktiko sentsibilizatzaillearen azalpenarekin hasi baino lehen, egokia iruditzen zait ebidentzia zientifikoak desgaitasuna duten pertsonen bizi behar izaten dituzten zailtasun eta hauekiko dauden pertzepzio eta jarrerari buruz dioena ezagutzea. Hori dela eta, jarraian, marko teorikoko puntu ezberdinetan artikuluko zientifikoek desgaitasunei lotutako hainbat ideien inguruan hitz egingo da.

Alde batetik, gaur egun desgaitasuna duten pertsonen gizartean zein hezkuntzan izaten dituzten oztopoetaz hitz egingo da. Hala ere, arazo horiei aurre egiteko burutzen diren sentsibilizazio jarduerak nolakoak azaltzen dira eta Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat erakundek bultzatzen dituzten programen azalpena egiten da. Horretaz gain, pertsona guztiontzat bideratuta dagoen hezkuntza inklusiboan desgaitasuna duten pertsonen inklusioan Gorputz Hezkuntzak izan dezakeen garrantzia azpimarratzen da eta nola hezkuntza metodo honek haur zein nerabeek desgaitasunen inguruan izan ditzaketen aurreiritzi zein jarrera negatiboak aldatzea eragin dezakeen azaltzen da.

2.1. SENTSIBILIZAZIOA

Jarrera negatiboak dira desgaitasuna duten pertsonen gizartean parte hartzea eta erabat sartzea mugatzen duten oztopo nagusietako bat (Osasunaren Mundu Erakundea, 2011). Desgaitasunen bat duten pertsonen estereotipo negatiboak izaten jarraitzen dute, askotan aurreiritzi eta sinesmen faltsuz beteta daudenak, eta kolektibo horri honako etiketa hau egozten diote: mendekoak, apalagoak, antisozialak, eguneroko bizitzan parte hartzeko gai ez direnak edo emozionalki ezegonkorak direnak (Altman, 1981; Dixon, 1977; Hutzler, Zach & Gafni, 2005; Wilson & Lieberman, 2000).

Gizartean jarrera negatibo horiek agertzeak desgaitasuna duten pertsonen portaerak eta aukerak murriztera garamatza, gizarteratzearen bidean benetako oztopo gisa sendotuz (Aguado, Flórez & Alcedo, 2003; Altman, 1981; Lee & Rodda, 1994; Shannon, Schoen & Tansey, 2009).

Ikastetxeetako egoerari dagokionez, gizartean gertatzen den bezala, desgaitasunari buruzko ezagutza ezaren arazoak eragin zuzena du haurrek desgaitasuna duten ikaskideekiko duten jarreran (Ison et al., 2010; Nowicki, 2006), jarrera negatiboak eragiten. Jarrera horien ondorioz, desgaitasuna duen ikaslea eguneroko jardueretatik kanpo geratzen da ikastetxean (Rillotta & Nettelbeck, 2007), eta gainerako ikaskideek onarpen baxua izaten dute (Frese & Yun, 2007). Desgaitasunari buruzko ezjakintasuna, aurreiritziak eta gaizki-ulertuak modu ohikoan eta orokorrean gertatu dira, urteetan zehar desgaitasuna duten pertsonen atzetik (Wilson & Lieberman, 2000), eta desgaitasunari buruzko sentsibilizazio-jardueren bidez gainditu ahal izan dira. Beraz, ikasleek ikaskideei buruz dituzten ideiak desgaitasuna ulertzeko moduaren arabera izango dira neurri handi batean (Cooper, 2004; Hurst, Corning, & Ferrante, 2012).

Gorputz- eta kirol-jarduera tresna pribilegiatua izan da balioak eta jarrerak transmititzeko, normalizatzeko, berdintasunerako eta gizarteratzeko (Canales, Aravena, Carcamo Oyarzun,

Lorca & Martínez-Salazar, 2018; Krahé & Altwasser, 2006; Pérez-Tejero, Ocete, Ortega-Vila & Coterón, 2012; Prat & Soler, 2002; Ríos, 1994; 2006), gorputz hezkuntza kontsideratuz, beste edozein eskola-irakasgairan aurretik, balioak eta jarrerak garatzeko joera handiena duen hezkuntza-arloa (Velázquez & Maldonado, 2004). Egile askorentzat, gorputz-hezkuntza, bereziki, eta gorputz- eta kirol-jarduera, oro har, gizarteratzeari gehien laguntzen dioten testuinguruetako bat da, berdin eta desberdin taldeen arteko adiskidetasuna, lankidetzeta eta laguntza sustatuz (Grandisson, Tétreault & Freeman, 2012; Ocete, Pérez-Tejero & Coterón, 2015; Özer, Baran, Aktop, Nalbant, Aglamis & 2012).

Desgaitasunen bat duten pertsonen hezkuntza-eremuan bizi duten egoeraz kontzientziatzea errazteko gakoetako bat desgaitasunik ez duten pertsonen desgaitasunari buruz esperimentatu eta ikasteko jarduerak sustatzea da. Hainbat egilek aztertu eta definitu dituzte desgaitasunen bat duten eta ez duten ikasleen artean gizarteratze arrakastatsua errazteko esku-hartze programen gakoak. Desgaitasuna duten ikasleek eskola inklusiboetan duten esperientzia positiboa izan daiteke, ikaskideek onartzen badituzte (Hurst et al., 2012).

Joko motor sentzibilizatzaileen inguruan, Mercedes Riosen arabera (2003), joko motor sentzibilizatzaileak aniztasuna ulertzea errazten duen baliabide pedagogiko gisa erabiltzen dira. Esperimentatzea barneratzeko eta, horrela, adierazteko eta erlazionatzeko. Gurpil-aulki bat maniobratzea, makila baten laguntzaz ikusi gabe mugitzea, ikusi ezin dezakeenari nola lagundu irakastea, gurpil-aulkian basketean jolastea eta abar, jarduerak bera ikaskuntza-iturri esanguratsu izateaz gain, balioetan eta jarreretan hezten duten bizipenak dira, desgaitasunaren ondorioak ezagutzea ahalbidetzen dutenak, eta, horrekin batera, haren balorazioa, babesa eta norberaren hurbiltasuna, boluntarioa eta solidarioa, norberaren ereriko errealitate desberdin horrekin. Helburu nagusia partehartzaileek desgaitasuna duten pertsonen errealitatea ezagutaraztea da, aniztasunaren errespetuan oinarritutako kooperaziozko eta elkartasuneko jarrera positiboak sustatuz eta jolasaren bitartez jarrera negatiboak edota ez integratzaileak agertzea sahiesteko asmoz. Guzti hori hurrengo helburuetan gauzatzen da:

- Desgaitasuna duen pertsona batek bizi duen errealitateaz jabetzea.
- Mugak bizi eta eta esperimentatzea, mugikortasun mugatua eta urritasun sensorialarena eta beraz, desgaitasuna duten pertsonen eguneroko bizitzan aurkitzen dituen zailtasunak hautematea (komunikazio barrerak, oztopo arkitektonikoak,...)
- Desgaitasuna duten pertsonen gaitasunak baloratzea.

Joko horiek ikasketetan erabili dira ikasleek desgaitasunarekiko duten jarrera kontzientziatzeko, sentzibilizatzeko eta aldatzeko, eta emaitzak positiboak izan dira. Adibidez, Navarrok (2009) Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendutako jolas-jardueren eta jolasen ondorioak aztertzen ditu, eskola-dinamikan gehiago eta hobeto integratzeko eta behar bereziak dituzten ikaskideekiko sentzibilizazio handiagoa lortzeko. Esperientzia ona da, eta desgaitasunarekiko kontzientziazio-maila lortzen da.

González eta Bañosek (2012) jarduerak fisikoko eskoletan desgaitasunarekiko jarreraren aldaketa aztertu dute, ikusmen-desgaitasuna duten pertsonentzako kirol bat eginez (Goalball). Azterlanaren ondoren, ikusmen-desgaitasuna duten ikasleekin espazioak eta esperientziak partekatzeari buruzko jarrerak eta sinesmenak nabarmen aldatu direla frogatu

da. Zentzu horretan, kirol egokitua joko sentsibilizatzaile gisa erabiltzen da, Abellan eta Sáez-Gallegoren lanean adierazitakoaren arabera (2017).

Joku kooperatiboei dagokionez, jokalariei taldeari begira jarduteko modu bat eskatzen dietenak dira, eta parte-hartzaile bakoitzak gainerakoekin lankidetzan jarduten du helburu komun bat lortzeko (Omecaña eta Ruiz, 2016). Lankideen balorazio positiboa sustatzen dute, gizarte-harremanak areagotzen dituzte eta aniztasunaren onarpena errazten dute (Ruiz, 2008).

Adibidez, Lavegak, Planasek eta Ruizek (2014) 8 eta 11 urte bitarteko 40 haurren (18 desgaitasunen bat duten eta 22 desgaitasunik ez duten) jokabide eragile kooperatiboak aztertzen dituzte, jolas kooperatiboen bidez inklusioa sustatzeko diseinatutako tailer batean parte hartzen duen ikasle bakoitzak jarraitutako elkarreragin-prozesua interpretatzeko. Egindako esperientziaren arabera, parte-hartzaile guztiak gai izan ziren lankidetzajokoetan modu aktiboan parte hartzeko, eta batez ere, enpatiarekin, elkarrizketa sozialarekin eta sozioafektibitatearekin lotutako jarrera eragile kooperatiboak izan ziren nagusi.

Riosek (2009) baieztatzen du lankidetzak desgaitasuna duten ikasleek parte hartzen laguntzen duela. Lankidetzak desgaitasuna duten ikasleen inklusioa hobetzen du, eta gehiegizko lehiaketak inklusio hori zailtzen du. Reina, Hutzler, Iñiguez-Santiago eta Moreno-Murtziak egindako ikerketa batek (2016) hautemandako trebetasun mailaren eta lehiakortasunaren arteko erlazioa aztertzen du. Emaitez erakusten dutenez, lehiakorrago eta trebeago sentitzen ziren ikasleek desgaitasun negatiboagoaren aldeko jarrera zuten. Ildo beretik, Abellan, Sáez-Gallego eta Reinak (2018) antzeko emaitzak izan dituzte beren azterketan. Beraz, badirudi gehiegizko lehiakortasunak zaildu egiten duela desgaitasunarekiko jarrerak hobetzea eta desgaitasuna duten ikasleak gorputz hezkuntzan sartzea, bereziki Gorputz Hezkuntzak lehiarako ikuspegia duenean. Lan honetan, Gorputz Hezkuntza ikuspegi kooperatibo batetik orientatzea proposatzen da, desgaitasunarekiko sentsibilizazioa bultzatzeko helburuarekin.

Aurrekari horiekin, jolas sentsibilizatzaileak eta jolas kooperatiboak batzeko planteamendua sortu zen, Gorputz Hezkuntzako ikasgeletan inklusioa sustatzeko, ikasleak baztertzeko edo isolatzeko egoerak saihesteko eta desgaitasunarekiko jarrerak hobetzeko.

2.1.1. SENTSIBILIZAZIO PROGRAMAK

Joko-jolas sentsibilizatzaileak programa sentsibilizatzaileetan burutzen dira. Ekuadorreko Hezkuntza Ministeritzaren arabera (2011), programa horien helburua parte-hartzaileak aniztasunari buruz eta desgaitasuna duten pertsonen buruz kontzientziatzea da errealitate horretara hurbilduko gaituzten jarduerak eta esperientziak sortuz, hezkuntza-inklusioren garrantziaz sentsibilizatuz eta errespetuan, tolerantzian eta elkartasunean oinarritutako hezkuntza sustatuz.

2.1.2. SENTSIBILIZAZIO PROGRAMAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

Euskal Autonomia Erkidegoan badaude sentsibilizazio programen zerbitzua eskaintzen duten hainbat erakunde, HASZTEN, GaituzPrest eta Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioa

hain zuzen ere. Jarraian, erakunde bakoitzaren nondik norakoak eta eskaintzen duten sentsibilizazio programaren inguruko informazioa azalduko da:

GAITUZSPORT

GaituzSport desgaitasuna duten pertsonak komunitateko testuinguruetan jarduera fisikoa modu normalizatuan egitea erraztuko duten baliabideak eskaintzen espezializatzeko helburuarekin sortu zen. Parte hartzeko oztopoak hautsiz, prozesu berrietan berrituz eta daudenak hobetuz.

Hainbat administrazio batzen dituzte eredu inklusiboak ezartzeko; izan ere, desgaitasuna duten pertsonak gizarteratzea lehentasunezko ardatza da Euskadiko gizarte-politikan, eta funtsezkoa bizi garen garaian.

Staff-a proiektu honen balioak partekatzen dituzten profesionalek osatzen dute, eta beren gaitasunak eraginkortasunez, etikoki eta erantzukizunez batzen dituzte, helburuak lortzeko. Betiere, pertsonen aniztasuna errespetatuz, jarrera positiboa eta aktiboa erakutsiz eta aukera-berdintasuna sustatuz.

Sentsibilizazio Programa

Hezkuntzaren arloan, beraien lana curriculumean garatzen dute, Kirolene Eusko Jaurlaritzako Kirol Irakaskuntzen Zentroarekin lankidetzan; prestakuntza eta aholkularitza eskaintzen diete bertako profesionalei, gorputz-hezkuntzaren arloan inklusioa bultzatzeko helburuarekin.

Gainera, inklusio hori benetakoa izan dadin, inguruneak proposamen eta egokitzapen horiekiko harkorrak izatea lortu behar da, sentsibilizazioa bezalako ekimenekin.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak finantzaturako programa honek desgaitasunaren errealitatea hurbiltzen die haurrei ikastetxeetan, gorputz-hezkuntzaren eta jolasaren bidez. Ekimen honen helburu nagusiak dira hautemate soziala eta estereotipo negatiboak aldatzea, desgaitasuna duten pertsonetikiko, eta aniztasunarekiko eta inklusioarekiko errespetua sustatzea.

Kirolaren bidez, desgaitasunaren balio positiboak bistaratzear datza, gizarte-transferentzia duen hezkuntza-inklusioaren mezu posibilista azpimarratzeko.

Helburuak:

- Desgaitasunaren mundua ikasleei hurbiltzea.
- Integrazioa eta aniztasunarekiko errespetua sustatzea.
- Estereotipo eta aurreiritzi sozialei buruzko hausnarketa sustatzea.

- Irakasleak sentsibilizatzea eta prestatzea, gorputz-hezkuntzako eta eskola-kiroleko saioetan ezgaitasunak dituzten ikasleak erabat sar daitezen.

Kontzeptuzko edukiak:

- Urritasun, ezgaitasun eta minusbaliotasun terminoen ezagutza.
- Ezintasuna ezagutzea.
- Paralinpiar mugimendua ezagutzea.
- Ezintasunen arabera egiten diren kirol egokituak ezagutzea.
- Desgaitasuna duten pertsonen integrazioa eta normalizazioa lortzeko egin daitezkeen jarduerak ezagutzea.

Prozedurazko edukiak:

- Sentsibilizazio-jolasak, desgaitasuna esperimendatuz, zentzumen bat kenduz edo gorputz-kideak immobilizatuz.
- Kirol egokituaren praktika.
- Berariazko materiala eta laguntza teknikoak erabiltzea (gurpil-aulkiak, kaskabilodun baloiak, etab.).
- Zentroaren beraren oztopo arkitektonikoak aurre egitea, desgaitasuna duen pertsonaren lekua hartuz. Itsuentzako eta gurpil-aulkia gidatzeko teknikak.
- Lan-fitxak egitea, egungo gizartean desgaitasunari ematen zaion tratamenduari buruzko hausnarketa sustatzeko.

Jarrerak eta balioak sustatzea:

- Elkartasuna
- Errespetua
- Eskubide- eta aukera-berdintasuna
- Gizarteratzea
- Aniztasuna onartzea
- Pertsona bera onartzea gainerakoekin dituen desberdintasunekin
- Borondate-indarra

- Norberaren burua gainditzea
- Ahalegina
- Iraunkortasuna
- Emaitzak berehalakoak ez izatea eta mugak berak onartzea

Metodologia:

Jarduera teoriko eta praktikoak dituzten txokoak:

Ikastetxeko sentsibilizazio bakoitzean, begiraleek taldeka banatzen dituzte parte hartzen duten ikasleak, eta talde bakoitzak hainbat txokotan lan egiten du.

Txoko bakoitzean jarduera desberdinak egiten dira, eta ikasleak guztien artean ibiltzen dira, sentsibilizazio-programako jarduera guztiak osatu arte, zati teoriko batekin eta jarduera praktikoekin.

Prozesu horretan, oso garrantzitsua da bertan dauden irakasleek aktiboki parte hartzea, saioko jarduerak dinamizatzen laguntzeko eta, aldi berean, beharrezko prestakuntza eskuratzeko, gorputz-hezkuntzako saioetan ezgaitasunen bat duten ikasleak sartzen jarrai dezaten.

Txokoetan egiten diren jarduerak:

- Ikus-entzunezko baliabideen bidezko azalpen teorikoak
- Hitzaldiak: begiraleen aurkezpen labur baten ondoren, ikasleek berek dinamizatzen dute jarduera, beren galdera eta/edo iruzkinen bidez.
- Tailer praktikoetan, kirol inklusiboko praktikak eta jolasetan oinarritutako proposamenak proposatzen dira, laguntza teknikoak erabiliz, aniztasunean aukera-berdintasunean parte hartzea posible dela barneratu eta sentitzeko.
- Ikasleentzako fitxak eta dokumentuak erabiltzea, gure esku-hartzearen aurreko edo ondorengo desgaitasunaren gaia lantzeko.

Gorputz Hezkuntza Inklusiboko Programa

Hezkuntzaren arloan, GaituzSportek, Kiroleneren bidez, hau da, Eusko Jaurlaritzako Kirol Irakaskuntzen Euskal Zentroaren bitartez, gorputz-hezkuntza inklusiboko programa bat garatzen du desgaitasuna duten ikasleentzat.

Hezkuntza Sailak, Berritzegune Nagusiaren laguntzarekin, bultzatzen du ekimen hori Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzatik.

Ezaugarriak:

Programak, lehen fasean, prestakuntza eta aholkularitza eskaintzen die Gorputz Hezkuntzako irakasleei eta hezkuntza-premia berezietako profesionalei. Azken kolektibo horren barruan, pedagogo terapeutikoez, aholkulariek, orientatzaileek, hezkuntza-laguntzako espezialistek eta fisioterapeutek hartzen dute parte.

Hasierako informazioa diziplina anitzeko ikuspegitik eskaintzen da, bigarren fase batean gorputz-hezkuntzaren arloko curriculum-aldaketari ekin ahal izateko.

Prestakuntza honetan ezagutza teorikoak ematen dira, saioen eremu praktikoan aplikatzeko, ikasle guztien inklusioa errazten duten estrategiak erraztuko dituzten hezkuntza-ibilbideekin. Plangintza aniztasunaren arabera egiten da.

Aholkularitzaren arloan, hezkuntza-eragileei, batez ere gorputz-hezkuntzako irakasleei, hainbat arlotan aditu baten laguntza eta jarraipena izateko aukera eskaintzen zaie:

Gorputz Hezkuntzako curriculum-edukiei buruzko zereginak egokitzea
Material espezifikoak hautatzea

Saio teorikoak eta praktikoak Berritzegune antolatzailearekin zehazten dira.

HASZTEN:

HASZTEN elkarteak 2014ko azaroan sortu zen, aniztasun funtzionala duten Bizkaiko neska-mutilen kolektiboan kirol-hastapena bultzatzeko asmoz.

Hasierako ideia familia batzuek eskaintza federatiboaren zein elkarte-eskaintzaren barruan haien hutsune bat zena betetzeko zuten beharretik sortu zen. Horregatik, lehenengo helburua kirol desberdinen ikaskuntza sustatzea izan zen, sinpleenetatik konplexuenera, etorkizunean lehiakortasunera iritsi ahal izateko.

Dibertsitate funtzionala duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko lan egiten dute, kirolaren eta jardueraren fisiko inklusibo eta egokituaren bidez, Bizkaiko lurraldean. Dibertsitate funtzionala duten pertsonen irisgarritasun unibertsalerako eskubidea bermatzen duen diziplinarteko taldea da, 5 planoko ekintza-plan integral baten bidez: elkarteena, federazioarena, udalarena, hezkuntzarena eta terapeutikoarena.

Sentsibilizazio programa

Sentsibilizazio-proiektuaren helburua, bere izenak dioen bezala, gizartea sentsibilizatzea da.

Ikastetxeetara eskola-orduetan joatea eta proiektuaren onuradun estrategikotzat jotzen diren espazioetara joatea, kirol-tailer batzuen bidez, non Bizkaiko haurrak dibertsitate funtzionala duten pertsonen larruan jarriko diren egunean zehar.

Helburuak:

- Dibertsitate funtzionala duten pertsonak errespetuaren bidez balioestea.

- Hainbat jolas eta dinamika sesnsibilizatzaile ulertzea, baita kirol espezifiko egokituak ere.
- Mundu paralinpikoaren bidez heztea, ahalegina, inplikazioa eta kirol-diziplina norberaren burua gainditzeko alderdi positibo gisa erabiliz.
- Jardunaldian parte hartzen duten haurren integrazioa eta aukera-berdintasuna sustatzea
- Ezintasun sentsorialek eta fisikoek dakartzaten mugak egiaztatzea, eta horiek ekar ditzaketen zailtasun eta oztopoetan heztea.
- Gizarte bidezkoagoa eta inklusiboagoa sustatzea.

GIPUZKOAKO KIROL EGOKITUKO FEDERAZIOA

Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioa irabazi asmorik ez duen entitatea da. Nortasun juridikoa eta jarduteko ahalmena du, eta kirolari, laguntzaile, teknikari, epaile, kirol elkarte eta klubak biltzen ditu bere baitan, Gipuzkoako Lurralde Historikoan urritasuna duten pertsonak kirola egin dezaten sustatzeko eta antolatzeko.

Federazio honek hainbat kirol mota biltzen ditu, eta urritasun fisikoak, psikikoak, sentsorialak, adimenekoak, garun paralisia dutenak eta urritasun mistoak dituzten pertsonak biltzen ditu. Kirol mota egokitua da, eta bertan sartzen dira Euskadiko kirol federazioak araupetzen dituen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren eranskinean biltzen diren kirol praktika (mota eta diziplina) guztiak eta ezintasunak dituzten pertsonak egiten dituzten beste kirol bereziak.

Sentsibilizazio programa

Sentsibilizazioak kanpaina bidez eramaten dira aurrera, momentu puntualeko ekintzekin kirol egokitua erabiliz urritasun egoera ezberdinak bizituz.

Sentsibilizazioak ikastetxeetan edo irekiak izan daitezke kaleko zenbait ekintza gisa antolatuz GKEF-FGDaren eskutiK edo eta udaletxe, asoziazio, enpresa edo beste entitateekin elkarlanean.

Hauetako jardunaldi askotan, Gipuzkoako kirol egokituko elkarteek paper garrantzitsua izaten dute, kirolarien esperientzia ezberdinekin kontatuz eta kirol modalitate ezberdinak aurrera eramanez.

Ikusi ditugun sentsibilizazio programak aproposak direla esan genezake oso ondo planteatuta daudelako eta nik bizi izan dudanaren arabera, oso eraginkorrak direlako.

Nire kasuan, Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioak ikastetxeetan egiten dituen sentsibilizazio jardueretan parte hartu dut eta lehen pertsonan ikusi dut dinamika honek nerabe zein haurrengan izan duen eragin positiboa. Saio horietan, desgaitasun ezberdinak

simulatu behar ziren jarduerak egin ostean, saioan zehar bizitakoaren inguruko hausnarketa egiten genuen ikasleekin eta esaten zuten hasiera batean desgaitasunen inguruan zituzten aurreiritziak ez zirela egokiak eta meritu handia duela dituzten arazo motor zein sentsitiboekin jarduera fisikoa egiteko gai izatea.

2.2. DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN INKLUSIORAKO BARRERAK

Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioaren (2006) arabera, urritasunen bat duten pertsonen arteko elkarreraginetik eta baldintza berdinetan erabateko parte-hartzea eragozten duten jarrera negatiboek eragindako gizarte-oztopoetatik abiatuta eraikitzen den nozioa da desgaitasuna. Hori dela eta, desgaitasuna eragiten duten kausak nagusiki sozialak direla ulertzen da, eta, beraz, arazoa gizarteak berak askotariko beharrianak aitortzeko eta horiei erantzuteko ezartzen dituen mugetan datza (Palacios, A. y Romañach, J., 2007).

Jarrera negatiboek dagokionez, desgaitasuna duten pertsonetako jarrera negatiboak gizarte-bazterkeriako egoerak sustatzen dituzten oztopo gisa identifikatu dira, eta desgaitasuna duten pertsonen eskubide- eta aukera-berdintasuna eragiten duten diskriminazio-ekintzen oinarri dira (Eroles, C. y Fiamberti, H., 2008). Jarrerak sinesmenak, sentimenduak eta ekintzarako orientabideak barnehartzen dituzte jarrera-objektuarekiko elkarrekintza-egoeretan, kasu honetan, desgaitasuna duen pertsonarekiko. Jarrerak eskuratzea gizarte-elkarreragineko eguneroko egoeretan gertatzen da, askotariko esperientziak eta ikaskuntzak inplikatzeko dituzten prozesuetan (Kersh, J., 2011). Gaur egun ere, desgaitasuna duten pertsonen estereotipo negatiboak izaten dituzte, anormaltasun, mendekotasun eta gaitasun ezari lotuta (Scior, K., 2011).

Aurrekoarekin erlazionatuz, estigma normalean balioespen negatiboekin lotuta egoten da, erlatiboki arauaz ihes egiten eta beheragotzen (estereotipoa) duen atributo bati hain zuzen ere (Goffman, 1988; Monteiro, 2008). Estigmaz hitz egitea halabeharrez gertatzen da desgaitasunaz hitz egiten denean; izan ere, normalean, pertsona horietako gehienek eta haien familiek beren larruan sentitu dute estigmaren pisua beren ingurune hurbileko edo sozialeko norbaiten aldetik. Estigmak, jarrera negatiboekin batera, aukera eman dezake oztopo sozial gehigarriak altxatzeko, pertsona horien isolamendua eta marjinalizazioa areagotzeko (Santos, Crespo & Guillén, 2009). Desgaitasunen bat duen edozein pertsona negatiboki ebaluatua izan daiteke ezaugarri horrengatik, pertsona bere balio eta gaitasun guztiekin osotasun gisa ahaztuta (Goffman, 1988; Monteiro, 2008).

Hainbat egilek dioten bezala, estigma ez da desgaitasunaren arazoa soilik, baina bai desgaitasunaren arazoa, eta sufrimendu handikoa izan daiteke batzuentzat, batez ere ageriko desgaitasun fisikoa dutenentzat, berehala pertsona normalek begirada desberdin batekin begiratzen baitituzte (Camargo, 2000; Cavalcante & Minayo, 2009; Pereira, 2006; Soares & Brooke, 2008).

Estigmaren eta gizarte-irudiaren bidez osatzen dute desgaitasunen bat duten pertsonen beren irudia, desberdintasunetik abiatuta, eta, horren bidez, gizartearen erabateko onarpenerako oztopotzat hartzen dute; horregatik, askotan, jendaurrean agertzea edo zeregin jakin batzuk egiten saiatzea saihesten dute, lotsa ematen dielako edo gai ez direla uste dutelako, autoestimua eta autoeraginkortasunaren pertzepzioa arriskuan jarriz. Hemen, estigma publikoa ez ezik, autoestigma ere implizitua dago, askotan arbuioa aurreratzeko aukera ematen duena, nahiz eta oraindik gertatu ez den, nahiz eta izandako estigmatik desberdina izan, hau da, diskriminazioak bizitako esperientzietatik eta biktima izan direlako arbuioetik (Link, 1987; Link, Struening; Rahav, Phelan et al., 1997; Rodríguez, et al., 2004; Costa, Leitinto, 2006).

Gizartean bezala, gorputz-hezkuntzaren egungo egoera, hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleen (ACNEE) arretaren aurrean, ez da oso pozgarria (Mendoza, N., 2009).

Eskola arruntak hezkuntza ikasle arruntei bideratuta dagoela ulertzen du, eta, beraz, ikasle asko behar bezalako arretarik gabe geratzen dira antolaketa, espazioen eta denboren zurruntasunagatik. Ikusmolde horretan, banakako desberdintasunak garapenaren atzerapentzat, ikaskuntzaren hutsunetzat, nortasunaren garapenaren alteraziotzat edo familia-egoeraren ondoriozko arazotzat hartzen dira. Beharrari baino gehiago defizitari erreparatuz, eta gehiago ikasleak desberdin duenari berdin duenari baino (Ríos, 2003).

Hauek dira inklusioaren helburua lortzea eragozten duten funtsezko faktore batzuk (Calverol, 2000):

1. Barrera arkitektonikoak ikastetxeetan.
2. Gorputz-hezkuntzako irakasleen prestakuntza eta informazio, bai eta laguntzako profesionalik izan gabe, arazo baten aurrean isolatzea ere.

Barrera arkitektonikoen inguruan, Alfonsoren hitzetan (2010, p.1) "oztopo arkitektonikoak defini ditzakegu pertsonen mugimenduen askatasuna bi eremu handitan (irisgarritasuna eta desplazamendua) oztopatzen duten oztopo fisiko gisa".

Oztopo arkitektonikoak presente daude gure egunerokotasunean. Beraz, ikastetxeetan ere aurki ditzakegu zoritxarreko oztopo horiek (Almazan, A., 2018). Mugikortasun urriko ikasleek, ikastetxera sartzekoan oztopoak izateaz gain, arazoak dituzte egonaldi guztietan askatasunez mugitzeko. Aguadok eta Alcedok (2001, 5. or.) ondo adierazten duten bezala, zoritxarrez ez dute beti igogailurik, jasogailurik, maniobra-zabaltasuna ahalbidetzen duten espaziorik, ez labaintzeko pisurik, etab. Era berean, egile horien ustez, konponbidea ez da ikastetxeko beheko solairuan egokitzen egitea, horrek ez baitu errazten haurra normaltasunez integratzea. Ikastetxean sartzeko eta bertan mugitzeko irisgarritasunari buruzko arazoak ez ezik, ikasgela barruko irisgarritasuna ere arazotsua da. "Eskolako altzariak egokitzea eta eskolako lanak ikastea eta garatzea erraztuko duten gailuak eta laguntza teknikoak erabiltzea beharrezkoak eta, askotan, ezinbestekoak dira helburu akademikoak lortzeko" (Aguado eta Alcedo, 2001, 5. or.).

2.3. HEZKUNTZA INKLUSIBOA

Inklusioa ikasle guztiak hezkuntza erregularrean eta klase erregularretan hezteko praktika da, ezgaitasunak dituzten ikasleak barne (Forest eta Lusthaus, 1989; Stainback eta Stainback, 1990). Inklusioaren helburu nagusia da ikasle guztiei aukerak ematea ikasteko, bizitzeko eta elkarrekin lan egiteko behar diren trebetasunak eta jarrerak garatzeko gizartearen alderdi guztietan (Stainback eta Stainback, 1990).

Eskola inklusiboa ikastetxearen hezkuntza eta funtzio soziala ulertzeko modu bat da, planteamendu komunitario batetik abiatuta. Planteamendu horrek inplizituki darama ikastetxearen eta bere testuinguruaren eraldaketa, aniztasunarekiko hezkuntza-erantzuna egokitzeko eta hobetzeko, hura aitortuz eta ez asimilatuz. Beraz, ikasle guztiek eskubide bera dute kulturalki baloratutako curriculum bat eskuratzeko, adin bereko ikaskideekin partekatuta, edozein bereizketa-moduren aurka eginez (Ballard, 1997; Barton, 1997; Booth, 1998; Stainback, S., Stainback, W. eta Jackson, 1999; Ainscow, 2001; Parrilla, 2002; Arnaiz, 2003; Puigdemívol).

Ainscow-ek (2001) proposatzen du eskola inklusiboan ikasle guztiek lekua dutela beren ezaugarriak, zailtasunak eta ikasketa-erritmoak kontuan hartu gabe. Era berean, irakasle guztiek izan behar dute ikasle guztien bilakaeraren ardura, salbuespenik gabe. Ikasgela arruntean banakako desberdintasunak aukeratzat hartzen dira eta ez dira arazo gisa ikusten

Autore batzuek eskola inklusiboa nola izan beharko litzakeen adierazten dute. Adibidez, Stainback, S., Stainback, W. eta Jackson, H.J. (1999), honela bereizten dute eskola inklusiboa:

-«Integrazioa» terminoa gainditzea; izan ere, esanahi bakarra du norbait aldeztatik baztertua egon den leku batean kokatu nahi denean.

- "Inklusioa" esamoldea erabiltzea etxetik gertu dauden ikastetxeetan ikasle guztiei ematen zaien arreta aipatzeko. Haur guztiek eskola eta gela beretan egon behar dute, desberdintasunik gabe, irakaskuntza egokituz eta ikasle guztiei pedagogikoki eta sozialki lagunduz, haur guztiek taldean duten premisatik abiatuz, eskolan eta komunitatean guztiek ikas dezaketenetik. Beraz, ikastetxeetako langile guztiek eta baliabide guztiek hezkuntza orokorrera jo behar dute.

- Eskolak komunitatea sortzeko motorra izan behar du, ikasleei autonomia eta interdependentzia erraztuz, guztientzako hezkuntza-lana ahalbidetzen duten estrategia berritzaileen bidez gela arruntetan; desberdintasunak hartuz eta curriculumaren berezko elementutzat jotuz, eskola-programaren alderdi guztietan errespetatuz. Beraz, irakasleei laguntzeko laguntza-sare komunitarioak garatu behar dira.

Curriculumean, ikaskuntzak lehenesten dira ikasleen arteko desberdintasunen gainetik, eta baliabideak jartzen dira bermatzeko ikasle guztiak seguru senti daitezen, besteekin

lankidetzan lan egin dezaten, besteen arrakastaz arduratu daitezten eta gainerako ikaskideekin neurtu beharrik izan ez dezaten.

